

G7aren ondorioz Biarritzen izango diren itxituren eta mozketen gaineko informazioa

2019ko abuztuaren 24, 25 eta 26an

Biarritzeko Turismo Bulegotik honako hau baieztatu digute:

Bi segurtasun-eremu sortuko dira, **abuztuaren 23ko 00:00etatik aurrera abuztuaren 26ko 20:00ak arte. (ordu hau aldatu daiteke)**


- Z1 edo "babes indartuko zona". (Kolore gorria)

Trafikoa erabat debekatuta dago (motorrak, bizikletak, monopatinak, autoak...).

Ibilgailuak aparkatzea debekatuta dago. (Ibilgailu orok z1etik kanpo egon behar du, beranduenez, abuztuaren 22ko 23: 59ak baino lehen).

Egoiliarak eta merkatariak, langileak, etab. oinez bakarrik sartu ahal izango dira, z1 gunean. Hona sartzeko baimena eta dokumentazioa beharko dute.

Estatuburuen eta gobernuburuen bileretara joango diren hotelen inguruak biltzen ditu zonaldeak: hotel handiak, kasinoa, Bellevue biltzarrak eta Grande Plage.



- Z2 edo "babes eremua". (Kolore urdina)

Ibilgailuan baimena, dokumentazioa eta itsasgarria duten pertsonak baino ezingo dute sartu (egoiliarrentzat eta profesionalentzat).

Saltokiak zabalik egongo dira egoiliarrentzat eta ordezkariarentzat.

Poliziaren kontrol-postuak jarriko dira.

AIREPORTUA

Miarritzeko aireportua abuztuaren **23tik 26ra** itxita egongo da.

Donostiako (Hondarribia) aireportuan, hegaldi erregularrek normaltasunarekin operatuko dute, baina hegaldi pribatuek ezingo dute lurra hartu.

TRENAK

SNCF

- Biarritzeko SNCF tren-geltokia:
 - Ostirala, abuztuak 23. Biarritzera heltzen diren trenak bakarrik egongo dira. Biarritzeko irtetzen den trenik ez da egongo.
 - Larunbatetik, abuztuak 24, astelehenera, abuztuak 26: ez da trenenik egongo.
- Bocau eta Bayonne geltokiak
 - Trenek geltoki hauetan ez dute geldialdirik egingo abuztuaren 23tik 26ra.
- St. Jean de Luz eta Dax-eko geltokiak
 - Trenek euren ibilbide arrunta egingo dute.

EUSKOTREN

Egun hauetan Topoa ez da Hendaiaiko geltokira iritsiko, abiapuntua eta bukaera Irun – Ficoba geltokia izango da.

MUGA

Muga modu intermitentean ixteko probabilitate handia dago. Bi herrialdeetako agintariek erabaki dezakete guztiz ixtea edo ia aurreabisurik gabe ixtea.

Informazio guztia Biarritzeko Udalaren webgunean:

<https://ville.biarritz.fr/les-actualites/info-g7-biarritz-2019-2921.html>